

IL AZALPEN PROBA • <i>Beste norbaiten zapatak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Ezkondu eta hogeitaz urtera, Juanek esan zion sekula ez zela operan izan. Dena gezurra, Gregory Pecken iruzurra. Bizitza gainbehera zihoakiola pentsatu zuen orduan Mariak; eta berdin pentsatzen jarraitzen du orain ere.

—Neska politekin egoteko estrategia zen, emakumea. Bizilagunak zuen diskoa entzun, azaleko argazkiari erreparatu, eta kito, lan handirik ez nuen hartu.

—Gezurretan ibili zara orain arte. Ez nauzu inoiz kontuan hartu. Beranduegi esnatu naiz.

—Zure lana da ni zaintzea. Nik ekarri dut soldata etxera; emakumearen zeregina da senarraren eta seme-alaben zaintza.

—Hor ere men egin nien besteek esandakoei. Orain gaztea banintz...

—Ez zara gaztetuko eta ixo! —erantzun dio Juanek, haserre—. Nirekin ez ezkontzea zenuen, neskazahartu eta etxean geratu. Baina hori ere ez zenuen nahi. Dena nahi duzue, eta gero beti kexan.

Urteetan sentitu duen beldurra areagotu egin zaio Mariari. Senarra gaixorik egonda ere, argi uzten dion non dagoen bakoitzaren tokia. Juan beti egongo da koska bat gorago, Alzheimerre aldean eraman arren.